

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

**GARAPEN EMOZIONALAREN OINARRIA HAUR HEZKUNTZAN: ULERMEN
EMOZIONALA, ERREGULAZIO EMOZIONALA ETA ENPATIA**

Egilea: Olatz Nazabal Meire

Zuzendaria: Inge Axpe

Leioan, 2018ko maiatzaren 27an

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. MARKO TEORIKOA.....	5
1.1 GARAPEN EMOZIONALAREN OINARRIA.....	5
Garapen emozionala 0-3 urte bitartean	5
Garapen emozionala 3-6 urte bitartean	7
1.2 ULERMEN EMOZIONALAREN DEFINIZIOA ETA GARAPENA.....	8
1.3 ERREGULAZIO EMOZIONALAREN DEFINIZIOA ETA GARAPENA	10
1.4 ENPATIAREN DEFINIZIOA ETA GARAPENA	11
1.5 HEZKUNTZA EMOZIONALA ESKOLAN	12
2. METODOLOGIA	14
2.1 PARTE-HARTZAILEAK.....	14
2.1 INSTRUMENTUAREN DESKRIBAPENA	15
2.2 PROZEDURA – LANAREN GARAPENA.....	15
3. EMAITZAK	16
3.1 SEXUAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK.....	16
3.2 ADINAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK	18
4.ONDORIOAK.....	20
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	24
ERANSKINAK	26
1. ERANSKINA. GARAPEN EMOZIONALA AZTERTZEKO GALDETEGIA.....	26
2. ERANSKINA. GALDETEGIA AURRERA ERAMATEKO LAMINAK.....	28

**GARAPEN EMOZIONALAREN OINARRIA HAUR HEZKUNTZAN:
ULERMEN EMOZIONALA, ERREGULAZIO EMOZIONALA ETA ENPATIA.****Olatz Nazabal Meire**

UPV/EHU

Garapen emozionalaren oinarria haurren lehenengo urteetan ematen da. Beraz, norbere emozioak ezagutzea, ulertzea eta ondo kudeatzen jakitea, eta besteenak ere antzematea eta ulertzea, ezinbestekoa izango da elkarbizitzarako giroa osasuntsua izan dadin. Egindako ikerketa honen helburua, 3-6 urte bitarteko 42 umeen (21 neska eta 21 mutil) garapen emozionala eta zehazki, ulermen emozionala, erregulazio emozionala eta enpatia zein puntutaraino garatuta dauden aztertzea izan da. Horretarako bi hipotesi planteatu dira: 1) Adinak aurrera egin ahala puntuazioak altuagoak izango dira; 2) Neskek mutilek baino altuago puntuatuko dute. Esan beharra dago, emaitzetan ezberdintasun esanguratsuak aurkitu arren, hipotesiak ez direla bete. Emaitza hauen arrazoi posibleak ondorioen atalean azaldu dira.

Garapen emozionala, haurrak, ulermen emozionala, enpatia, erregulazio emozionala

La base del desarrollo emocional se da en los primeros años de la infancia. Por ello, conocer las propias emociones, entenderlas y saber gestionarlas, y también reconocer y entender las del resto, será imprescindible para que la convivencia sea sana. Este trabajo tiene como objetivo conocer el desarrollo emocional de 42 niños y niñas (21 niños y 21 niñas) de 3-6 años de edad: hasta qué punto están desarrolladas su comprensión emocional, su regulación emocional y su empatía. Se han planteado dos hipótesis: 1) El alumnado de más edad, obtendrá mayores puntuaciones; 2) Las chicas puntuarán más alto que los chicos. A pesar de que los resultados muestran algunas diferencias significativas, no se pueden confirmar las hipótesis. Las posibles razones de estos resultados se analizan en el apartado de conclusiones.

Desarrollo emocional, niños, comprensión emocional, empatía, regulación emocional

The base of the emotional development takes place in the first years of childhood. Knowing the own emotions, understanding them and being able to deal with them, as well as recognizing and understanding those of others, will be necessary in order to have a healthy daily coexistence. The main objective of this survey is to analyze the emotional development of 42 children (21 girls and 21 boys) between 3-6 years old: to what extent emotional comprehension, emotional regulation and empathy are developed. Two hypotheses have been considered: 1) The older the children are, the better scores they will obtain 2) Girls will get better scores than boys. Even though statistical significant differences have been found, the hypotheses cannot be confirmed. The possible reasons for these results are analyzed in the conclusions section.

Emotional development, child, emotional comprehension, empathy, emotional regulation

SARRERA

Gaur egungo eskoletan garrantzi berezia ematen zaio ikasleen arlo akademikoari, arlo emozionalari behar duen arreta eskaini gabe. Baina, ez gara ohartzen arlo akademiko hori arlo emozionalak baldintzatzen duela: bakoitzak bere emozioak ulertzea, hauek egoera ezberdinetan erregulatzen jakitea eta besteekiko harremana osasuntsua izatea lan egiteko era horretan eragin zuzena baitute. Beraz, arlo emozional hori hain oinarrizkoa izanda, zergatik ez da behar beste lantzen? Akademikoki bikainak diren ikasleak bilatzen dira, askotan bikaintasun horretara heltzeko oinarrizkoak diren zenbait alderdi landu gabe.

Baliteke oraindik ere, eskola asko garapen emozional horrek duen garrantziaz jabetu ez izana, eta beraz, lehentasuna beste alderdi batzuei ematea eta hori izatea planteatutako galderaren erantzuna. Baina, jakinda hain garrantzitsua dela, lan honetan Haur Hezkuntzako zikloetako umeen garapen emozionala ezagutzea izan da helburik nagusia, garapen horretan lagundu ahal izateko, lehenengo eta behin garapena nolakoa den ezagutu behar delako. Horregatik, hiru alderdiri erreparatu zaie konkretuki: ulermen emozionalari, erregulazio emozionalari eta enpatiari. Hauek hirurek haurren kompetentzia emozionala modu zehatzago batean ezagutzen laguntzen dutenez (Henaio eta García, 2009), eskola bateko Haur Hezkuntzako ziklo osoan (3, 4 eta 5 urteko geletan), *Evaluacion del Desarrollo Emocional Infantil* (EDEI) (Henaio, 2006) instrumentua erabili da, zeini esker, aipatutako hiru alderdi horiek neurtzeko aukera egon den, sexu eta adinaren araberrako ezberdintasunak aztertuz.

Horrela txosten honetan, garapen emozionalaren garrantziaz aritzeko, lehenengo eta behin marko teorikoaren atalean, haurren garapen emozionalaren hiru alderdietan zentratu (ulermen emozionala, erregulazio emozionala eta enpatia) eta hauetan zer esan handia duten eragileak aztertu dira. Alde batetik, gurasoak, haurren lehenengo urteetan erreferenterik nagusienak direnak, eta bestetik, irakaslea, haurrak haien bizitzako beste esparru arautu batean (eskolan), hezten dituenak. Ondoren, metodologia atalean, hiru esparru horiek zein galdetegiaren bidez neurtu diren azaltzen da, galdetegia bera eta jarraitutako prozesua azalduz. Bukatzeko, jasotako emaitzak aztertu eta horien arrazoiak eztabaidatu dira emaitzen eta ondorioen ataletan. Egindako lan guztia garrantzitsutzat hartzen da, emozioak ulertzea, hauek erregulatzea eta besteekiko begirunea (enpatia) izatea gizaki oso eta sozialak izaten laguntzen digulako, gure barnea eta besteena ezagutzuz (Henaio eta García, 2009).

1. MARKO TEORIKOA

Arlo emozionalak duen nagusitasunaz jabetzeko, Gradu Amaierako Lan (GAL) honen lehen atal honetan garapen emozionalaren oinarria Haur Hezkuntza (HH) garaian kokatzen dela ikusiko da, garapen horretan eragiten duten faktoreak azalduz, eta horretan ezberdintzen diren hiru alderdi konkretu batzuk; ulermen emozionala, empatia eta erregulazio emozionala, azpimarratuz.

1.1 GARAPEN EMOZIONALAREN OINARRIA.

Haurra jaiotzen den momentutik, testuinguruarekin jartzen da harremanetan. Testuinguru horrek, bere beharrak asetzeko behar duena eskaini beharko lioke, baita emozio edota sentazio ezberdinak bizitzeko aukera ere. Haurraren garapen emozional hori, oinarrizkoa izango da eta garrantzi berezia hartuko du etorkizunari begira. Beraz, atal honetan, garapen hori 0-6 urte bitartean nolakoa den aztertuko da.

GARAPEN EMOZIONALA 0-3 URTE BITARTEAN

Familian ezartzen dira lehenengo hezkuntza praktikak, haurrentzat abiapuntu bilakatuko direnak. Hezkuntza praktika horien artean nabarmendu daitezke: sozializazio prozesuak, konpetentzia emozionalen garapena eta guraso eta haurraren artean sortu beharreko norabide biko lehenengo lotura (Darling eta Steinberg, 1993; in Henao eta García, 2009).

Hasierako momentutik, haurrak gurasoekin kontaktua mantentzen du, eta kontaktu horretan ematen den loturarik nabarmenena atxikimendua da; haurraren eta haurra zaintzen duen helduaren artean gertatzen den lotura emozional berezia (Jauregizar, 2012). Sortuko den lotura emozional horrek haurraren etorkizuneko garapena baldintzatuko du, haurraren auto-kontzeptu, besteekiko harremanen eredu eta haurrak munduarekiko izango duen ikuspegiaren oinarria ezarriko duelako.

Haurrak bere hurbileko pertsonekin izandako harremanei buruz eredu mental bat garatzen du, horren barruan sarturik oroitzapenak, itxaropenak eta emozioak. Eredu mental hori eraikitzerakoan, garrantzitsuena zera da: - Atxikimendu-irudiarengan nabaria den baldintzarik gabeko prestasuna (beraren beharra dudanean, hor dagoela beti). - Haurrak bere atxikimendu-irudiaren premia duenean, hark erakusten duen eraginkortasuna (ondo daki nire mezuak interpretatzen eta haiei erantzuten). Hori horrela ez bada, atxikimenduaren funtzio garrantzitsuena, segurtasuna ematea, galtzen da. (Bowlby, 1969; in Jauregizar, 2012, 7).

Beraz, haurra zaintzen duten helduen erantzukizuna eta garrantzia oso handia da, haurra jaiotzen den momentutik, atxikimendu edo harreman berezi hori egokia eta ziurra bada, haurraren garapenean epe luzeko eragin positiboa izango duelako, burmuineko garapenean eta gaitasun sozio-emozional ezberdinen garapenean eraginez (Olza eta Marín, 2014). Izan ere, harreman honen bidez haurraren nerbio sistema autonomoaren hasierako erregulazioa ematen da, eta haurraren sistema sozioemozional eta psikoneurologikoaren heltzea ahalbidetuko du (Bayón, Fernández eta Morón, 2012). Hau da, haur-helduaren arteko atxikimendu ziurra ezartzea ezinbestekoa da haurraren eskumako hemisferioa (bizitzaren lehenengo 2 urtetan nagusitzen den hemisferioa) heltzeko. Konkretuki, hurrengo arlotan eragiten du (Bayón et al., 2012):

- **Sistema linbikoan**, eskumako hemisferioan kokatzen dena eta informazio emozionala kudeatzeaz arduratzen dena. Sistema honek estimulu sozialen aurrean lehen ebaluazio ez kontzientea egiten du, eta beraz, estimulu horiekiko erantzuna baldintzatuko du.
- **Eskumako kortex orbitofrontalean**, ezinbestekoa dena afektuaren kudeaketan eta bestelako funtzio exekutiboetan. Hau da; emozioen kudeaketan, inpultsoen kontrolean, autoerregulazioan, hausnarketan....

Haurraren eta atxikimendu irudiaren arteko harremana ziurra bada, eta beraz, garunaren heltze eta garapena egokia gertatzen bada, oso oinarri sendo eta positiboa sortuko da haurraren ondorengo garapenean. Haurra konfiantza, enpatia, maitasuna eta poza sentitzeko kapaza izango da, eta humorea, pazientzia, sormena eta ekimena garatzeko oinarria izango du. Gainera, eragin hau oraindik haratago helduko da, haurraren etorkizuneko harreman sozialetan eragingo baitu (Bayón et al., 2012). Izan ere, atxikimendu ziurra garatzen denean haur eta gurasoaren arteko sinkronia dago; zeini esker gurasoa haurraren egoera emozionala ulertu eta erregulatzeko kapaza den. Gurasoarekin izandako erregulazio emozional honen esperientziari esker haurra gai izango da etorkizunean bere burua erregulatzeko eta emozioak, bereak eta besteenak, ulertzeko. Izan ere, haur eta gurasoen arteko sinkronia hori dagoenean (haurrek 3-9 hilabete dituztenean), ondoren Haur Hezkuntzan, 2, 4 eta 6 urterekin, haur horien autoerregulazioa hobea da, eta nerabezaroan enpatia handiagoa agertzen duten gazteak direla frogatu izan da (in Olza eta Marín, 2014).

Hortaz, haurraren bizitzako lehenengo urteak, Haur Hezkuntzako urteak, ezinbestekoak dira garapen emozionalerako, eta inguruan dituen helduen zaintzek

erabakigarriak izango dira honetan (APA eta NAEYC, 2007), garapen emozionalean eragiteaz gain, bere nortasunean eta garapen sozialean eragingo dutelako (Fogel, 1993; in Sroufe, 1995).

GARAPEN EMOZIONALA 3-6 URTE BITARTEAN

Adin tarte honetan, haurrak inguruko pertsonekin dituen interakzioen bidez bere burua esperientzia ezberdinez hornitzen jarraituko du. Gainera, interakzio horietan komunikatzeko hizkuntza erabiltzen hasiko da, eta kide edo beste haur batzuekin izango duen elkarreragina handituko da (APA eta NAEYC, 2007). Kideekin izandako elkarreragin hauetan, askotan gatazkak agertuko dira, oraindik elkarbanatzearen kontzeptua guztiz barneratuta ez dutelako (APA eta NAEYC, 2007). Lau urterekin, gatazkak hobeto ebatzi eta lagunen artean elkarbanatzea gero eta ohikoagoa bihurtzen da. Horrekin bat, haien jarrera edota emozioak erregulatzeko gaitasuna handitzen da, eta estrategia autonomoagoak erabiltzeko kapazak izango dira. Adibidez begiak itxi edo belarriak estali edota egoera ezberdinetatik aldentzea tentazioak saihesteko. Hala ere, oraindik egoera askotan sentimenduak modu egokian erregulatzeko helduaren laguntza beharko dute (APA eta NAEYC, 2007).

Adinak aurrera egin ahala, haurren gaitasun sozialak handituko dira, emozioen ulermen eta kudeaketa ere handiagoa delako, beste arrazoen artean ingurukoek emozioak nola adierazi eta kontrolatzen dituzten behatzeko aukera izan dutelako. Haurrek bost urte dituztenean, beste haurrekin kooperazioan aritzeko gaitasun handiagoa izango dute, eta gero eta gaitasun handiagoa izango dute besteen emozioak eta egoerak ulertzeko, enpatiaren garapenari esker. Garapen honekin batera haurrak egozentrismoa ere gaindituz doaz. Adin tarte honetan inguruan duten helduen paperak lehenengo urteetan bezain garrantzitsua izaten jarraitzen du. Izan ere, haurrak bere buruarekiko duen irudi edo pentsamendu positiboa garatzen laguntzen dute (APA eta NAEYC, 2007).

Aipatu beharra dago sexuak ere zer esan handia duela garapen emozional honetan. Izan ere, frogatu izan da nesken garapen emozionala handiagoa izaten dela, gizartean emakumeei sentimenduekin erlazionatu, eta horietan hezten zaielako (Candela, Barberá, Ramos eta Sarrió, 2002). Adibidez, ikusi izan da, neskek emozioak adierazteko gaitasun handiagoa dutela mutilek baino, eta batez ere, ama aurrean dutenean. Hau da, atxikimendu irudiaren aurrean errazagoa egiten zaie emozioak modu

espontaneo batean adieraztea, irakaslearen aurrean baino (Eisenberg et al., 1993; in Etxebarria, Apodaca, Eceiza, Fuentes eta Ortiz, 2003). Horrez gain, neskek mutilek baino emozioen kontrol handiagoa (Kochanska, Murray eta Coy, 1997; in Etxebarria et al., 2003), emozioak ulertzeko gaitasun handiagoa (Cervantes eta Callanan, 1998; in Etxebarria et al., 2003) eta bestearen lekuan jartzeko erraztasun handiagoa dutela frogatu izan da (Hoffman, 1977; in Retuerto 2004).

Laburbilduz, momentu honetan, haurrak etxetik kanpo, pertsona gehiagorekin interakzioan daude. Ondorioz, gatazkak handitzen dira. Hala ere, gatazkei aurre egiteko, gero eta gaitasun handiagoa dute, eta haien esperientzia eta garapen emozionala egokia izan bada, badakite haien haserrea hitzez nola adieraz dezaketen, baita bestearen tokian jartzen ere, oraindik honetarako eta gatazka modu egokian ebazteko, askotan, helduen laguntza ezinbestekoa izango bada ere. Horrekin batera, garunaren garapenari esker, besteen usteak edota ideiak norberaren ezberdinak izan daitezkeela ulertzen dute (APA eta NAEYC, 2007).

Orain arte aipatu diren eta elkarren eskutik lotuta doazen ulermen emozionalak, autoerregulazio emozionalak eta enpatiak, garrantzi berezia hartzen dute haurren garapen emozionalean. Hauei esker, gizaki oso eta soziala izaten ikasten dugu, baita gure barnea eta besteena ezagutzen ere. Hauek hirurek haurren konpetentzia emozionala modu zehatzago batean ezagutzen laguntzen dute (Henao eta García, 2009), beraz, hurrengo atalean hiru arlo horien garapena azalduko da.

1.2 ULERMEN EMOZIONALAREN DEFINIZIOA ETA GARAPENA

Gainontzekoen sentimenduak ulertzeko, lehenengo eta behin, gizabanakoak norberarenak ulertu behar ditu. Azkenean, gizabanakoak bere emozioak identifikatzeko gaitasuna badu, bestearenak ulertzeko erraztasun handiagoa izango du (Fernández-Berrocal eta Extremera, 2002). Horrela, haurrak, haien emozioen kontzientzia, zergatiaz zein ondorioez ohartzen doazen heinean, besteekiko eta haien egoera emozionalekiko ulermena handitzen doaz ere (Izard, 1994; in Henao eta García, 2009). Bakoitzaren zein inguruko pertsonen emozioak ulertzeak, ingurukoek nola eta zergatik jokatzen duten horrela ulertzen laguntzen du (Saarni, 1999; in León eta Sierra, 2008), eta beraz, interakzio aberatsagoak garatzen laguntzen du (Harris, 1993; in León eta Sierra, 2008).

ULERMEN EMOZIONALAREN GARAPENA.

Haurren bigarren urtean garapen kognitiboak aurrerapen nabarmenak izaten ditu. Izan ere, 18-24 hilabete bitartean, bakoitza bere emozioak antzemateko eta ulertzeko gai da. Gainera, inguruko pertsonak “asmoak” dituzten gizaki moduan ulertzen dituzte, nahita eta nahitaezko ekintzak ezberdintzen dituzte eta besteen ekintzak behatuz, haien nahiak zeintzuk diren ulertzeko gai dira (in Koski eta Sterck, 2009). Hogeita hamar hilabeterekin, egunerokotasuneko bizitzan izandako esperientziari esker, emozio ohiko edo ezagunak, bizi izan dituztenak, kausa eta ondorio batzuk eragin ditzaketela ulertzen dute (Bretherton eta Beeghly, 1982; in Manstead, 1995).

Eskolako etapa hasten denean haurraren bizitza sozialean aldaketa nabarmena ematen da. Horrek harreman eta sozializazio modu berriak eragiteaz gain, haurrak gizarte arautu baten parte dela ohartzea suposatzen du, arau eta ohitura berri horiek askotan familian ezagututakoen ezberdinak izan daitezkeenak (Denham, Zoller, eta Couchoud, 1994; Saarni, 1989; in León eta Sierra, 2008). Adin honetan eta emozioen ulermenari dagokionez, lau urterekin, haurrek aurpegi adierazpenak (tristura, haserrea, poza, beldurra, harridura eta nazka) jada ezagutu eta horiek sorrarazten dituzten egoerak antzeman ditzakete (in León eta Sierra, 2008). Beraz, adin honetan emozio ezberdinen zergatiak ulertzen dituzte, egoera emozionalen iragarpena egiten dute, eta jarrera enpatikoa agertzen dute (León eta Sierra, 2008). Adinak aurrera egin ahala, bost urterekin, haurrek emozioen kausak eta ondorioak gero eta hobeto ezberdintzen dituzte (Russell, 1990; in Manstead, 1995) eta sei urterekin, ipuin bateko pertsonai batek sozialki desegokia den emozio bat adierazten duenean, umea sozialki egokia den aurpegi adierazpena aukeratzeko gai izango litzateke (Saarni, 1979; in Manstead, 1995).

Edozelan ere, gogoratu behar da haurren ulermen emozionala guztiz baldintzatuta dagoela haurrak izandako testuinguruagatik (testuinguru horretako heldu eta zaintzaile nagusiekin izandako harremanagatik). Era berean, haurrak garatutako ulermen honek bere testuinguru sozio-emozionala baldintzatuko du ere: bakoitzaren emozioak zein besteenak ulertzeko gaitasunak, besteekiko harremanetan garatuz doana, etorkizuneko harremanetan eragin zuzena izango du (Manstead, 1995).

1.3 ERREGULAZIO EMOZIONALAREN DEFINIZIOA ETA GARAPENA

Erregulazio emozionala emozioak maneiatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna da (Fernández-Berrocal eta Aranda, 2008). Emozioak erregulatzeko; emozioak antzematea, sentitzea eta egoera afektibo hori bizitzea beharrezkoa da, arrazoitzeke era oztopatu ez dezan (Fernandez-Berrocal eta Extremera, 2002). Hala ere, haurrek egoera ezberdinei aurre egin behar dietenean, testuinguruak eskaini dizkien esperientziek eta haur bakoitzaren heltze-mailak eragin zuzena izango dute (López et al. 1999; in Henao eta García, 2009). Horrela, emozioak erregulatzeko garapenean, elkarri eragiten dieten faktore ezberdinek eragingo dute: testuinguru sozialak, batez ere haurra zaindu eta inguratzen duten helduek, gaitasun kognitibo-linguistikoak, eta garunaren heltzeak (Ato, González eta Carranza, 2004; González, Fuentes, Galián eta Estevez, 2001).

ERREGULAZIO EMOZIONALAREN GARAPENA

Haurraren bizitzako lehenengo hiru hilabetetan, autoerregulazio emozionala kanpo estimuluei guztiz lotuta dago. Hori dela eta, gurasoen jokabideen menpekoa izango da, hauek inguruko estimulazio hori handiagotu edo txikiagotu dezaketelako (Ato et al., 2004). Segun eta nolakoa izan den gurasoen hasierako jokabide eta zaintza hori, haurrek hiru hilabete betetzen dituztenean ondoeza eragiten dieten egoeretatik atentzioa desbideratu, atentzio hori beste elementu batzuetan finkatu, eta elementu berri horretan fokalizatutako arreta indartu dezakete, horrela haien burua neurri bateraino lasaitzeko eta estimulatzeko gaitasuna erakutsiz (Rothbart, Ziaie eta O'Boyle, 1992; in Ato et al., 2004). Sei hilabeterekin gaitasun motorren garapenari esker, haurrek estimulu konkretu batzuetatik aldentzeko edo gerturatzeko aukera izango dute (Rothbart, Ziaie eta O'Boyle, 1992; in Ato et al., 2004). Urte beterekin haurrek gero eta erregulazio estrategia autonomoagoak erakutsiko dituzte. Hala ere, hauek atxikimendu irudiarekin garatutako atxikimendu motaren arabera izango dira. Hau da, atxikimendua ziurra bada, ama edo atxikimendu irudia dagoenean haurraren estrategiak autonomoagoak izango dira. Hala ere, oraindik atxikimendu irudia desagertzen den uneetan, ezinegonak haurrari jolasean aktiboki inplikatzeko oztopatuko dio (Bridges, Grolnick eta Connel, 1997; in Ato et al., 2004) eta kasu hauetan agertuko dituen erregulazio estrategiak menpekoagoak izango dira; objektuen erabilera pasiboa, amarekiko kontaktuaren bilaketa... (Ato, González eta Carranza, 2003; in Ato et al., 2004).

Hogeita lau hilabeterekin, heltze garrantzitsua ikusten da haurren autoerregulazioan. Momentu honetan atxikimendu irudiarekiko independentzia handiagoa lortuko dute, horren presentzia zitura barneratu dutelako, eta “bulkaden kontrola” handitzen da, hizkuntzaren agerpen eta garapenarekin batera (Kopp, 1092; Ato et al., 2004). Horrela, Haur Hezkuntzako etapa hasten denean, autoerregulazio gaitasunetan hobekuntzak antzemango dira emozioen kudeaketan hizkuntzak hartzen duen garrantziagatik. Izan ere, “mintzamen pribatuari” esker (haurrek beren buruarekin egiten dutena), egoera ezberdinetan atentzioa fokalizatu eta portaera batzuk saihestu ditzakete (Bivens eta Berk, 1990; in Gónzalez, Carranza, Fuentes, Galián eta Estevez, 2001).

1.4 ENPATIAREN DEFINIZIOA ETA GARAPENA

Enpatia garapen kognitibo handia eskatzen duen gaitasuna da, alderdi kognitiboak eta afektiboak bat egin eta interakzioan jartzea suposatzen duelako (Koski eta Sterck, 2009). Enpatia bestearen egoera emozionala ulertzea da; bestea behatuz, informazioa eskuratuz... Gainera, bestearen egoera emozional hori elkarbanatzeko aukera ematen du. Beraz, enpatiak pertsonen garapen sozialean paper handia hartzen du (Eisenberg, 2000; in Retuerto, 2004), besteen arazoetan laguntzeko motibazioa pizten duelako (Retuerto, 2004). Horrela, enpatia altruismo, moralitate eta etikarekin guztiz erlazionatzen da (Hoffman, 2000; in Koski eta Sterck, 2009).

ENPATIAREN GARAPENA

Haur batek enpatia garatzeko, aurretik bi alderdi garatu beharko ditu: ulermen emozionala (bere buruarekiko eta besteekiko) eta bere emozio propioak erregulatzeko gaitasuna (Sroufe, 2000; in Henao eta García 2009). Izan ere, haurra jaiotzean, ez da gai besteengandik ezberdintzeko, gutxika garatuko du (bizitzako lehenengo bi urteetan zehar) bere burua gizaki indibidual bezala ulertzeko gaitasuna. Horrez gain, bere esperientzia eta helduen laguntzari esker inguruko pertsonen beharrak edota nahiak norberarenak ez bezalakoak direla antzemateko gaitasuna ere garatuko du. Hau da, hasierako “egozentrismotik” (mundua eta besteak bere ikuspegi propioan zentratuta ikustea edo ulertzea) aldentzeko gaitasuna garatuko du.

Hasiera batean, haurren artean, emozioak “kutsatzen” dira. Emozioen kutsadura hori jaioberrietan ematen den fenomeno da, non modu natural batean besteen emozioak

antzeko eran adierazten diren (Hatfield, Cacioppo eta Rapson, 1993; Martin eta Clarke, 1982; in Koski eta Sterck, 2009). Sei eta hogeita lau hilabete bitartean hasierako emozioen kutsadura hori gaindituko da. Hala ere, garai honetan “nia” eta “bestearen” arteko bereizketa urria denez, haurrak enpatia egozentrikoa adieraziko du. Hots, inguruko haur bat negarrez ikusten badu, haur horren negar edo estualdi momentua bere barnera eramango du, bere amaren babesa bilatuz (Eisenberg, Lennon eta Roth, 1993; Hoffman, 2000; Zahn-Waxler et al., 1992; in Koski eta Sterck, 2009).

Dena den, handik gutxira, “nia” eta “bestea” guztiz bananduta egon ez arren, haurrak beste haur bat estualdi momentu batean ikusten badu, hura laguntzeko ekimenean jardungo du. Esate baterako, negarrez dagoen haur hori bere amarengana eramango luke (Hoffman, 2000; in Koski eta Sterck, 2009). Hortaz, bi urteen amaieran, haurrak “bestea” aparteko entitate moduan ulertzeko gai izango da eta beraz, benetako enpatiaren etapa hasiko litzateke (Zahn-Waxler eta Radke-Yarrow, 1990; in Koski eta Sterck, 2009). Momentu honetan, haurra beste pertsonak entitate fisiko ezberdinak direla eta banakako bakoitzak barne egoera ezberdinak bizi dituela ulertuko du (Hoffman, 1991; in Retuerto, 2004). Horrela, bestearen egoera mentalen ulertzearekin batera, bestearekiko kezka piztuko da (De Waal, 2008; Hoffman, 2000; in Koski eta Sterck, 2009). Era honetan, 3-4 urte bitartean, haurra bere egoera mentalak eta besteenak ulertzeko gaitasun handiagoa izango duenez, kide bat triste ikustean, hura laguntzen saiatuko da (Hoffman, 2000; in Koski eta Sterck, 2009).

Orain arte ikusi izan den bezala, azaldutako emozioen garapena HH garaian ematen da hein handi batean, eta gurasoak aipatu diren arren, garrantzi handia izango dute ere inguruan eta egunerokotasunean haurrekin denbora luze ematen duten nagusiek, hots, irakasleek. Beraz, hurrengo atalean azaltzen den bezala, eskolak paper handia hartu beharko luke haurren garapen emozional hau egokia izan dadin.

1.5 HEZKUNTZA EMOZIONALA ESKOLAN

Haur Hezkuntzako curriculum-ean (237/2015 DEKRETUA-k, abenduaren 22koa) arlo emozionalari erreferentzia egiten zaion arren, ez du beste alderdi batzuek duten lekua hartzen, landu eta garatu beharrekoa bada ere. Curriculum-ak planteatzen dituen bi eremuetan, lehenengoan, «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuan, aipatzen diren helburuen artean, honako hauek egiten diote erreferentzia arlo emozionalari (237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa):

Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta **nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna** eraikitzeko.

Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), **segurtasun afektiboa** finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.

Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, **norberaren jokabidea erregulatu** eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea (237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, 30.or).

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko helburuei erreparatuz gero “norberak zer **emozio eta sentimendu** dituen **ezagutzea** eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, **gainerako pertsonenak aintzat hartzeko**” esaten da (237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, 37.or).

Ikusten den bezala, Haur Hezkuntzako curriculum-ean ikasgeletan irakasleok haurren garapen emozionalean lagundu beharko genukeela zehazten da, eta zehazki garapen emozionalaren zenbait alderdi azpimarratzen dira; besteak beste, ulermen emozionala (“zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea”), enpatiaren garapena (“gainerako pertsonenak aintzat hartzeko”) eta erregulazio emozionala (“norberaren jokabidea erregulatu”).

Arlo emozionalaren garapen egokia, hau da, norbere emozioak ezagutzea, ulertzea eta ondo kudeatzen jakitea, besteenak antzematea eta ulertzea, ezinbestekoa da eremu akademikoan arrakasta izateko, beste arrazoen artean eremu horretan kide zein irakasleekin etengabeko harremanak daudelako. Harreman horiek egokiak izan daitezen, garrantzitsua da enpatia, emozioen kudeaketa... (gaitasun sozialetan eragin nabarmena izango dutenak) txikitatik lantzea, elkarbizitzarako giro eta klima egokia sustatzeko eta jarrera oldarkorrak, gelan zein gelatik kanpo, saihesteko (Piñeiro, 2016).

Azken batean, eskolak guztiz eragiten du haurrengan, eta batez ere, haurren nortasuna eraikitzeko bide horretan. Horregatik, eskolak ikasleak emozionalki adimentsuagoak hezi beharko lituzke, estrategia eta oinarrizko gaitasun emozionalak garatzeko aukera emanaz (Vallés, 2000; in Viloría, 2005). Izan ere; pertsonen garapen osasuntsurako jarrera positiboak izatea, emozioak sentitu eta ezagutzea (bakoitzarenak, baita besteenak ere) elkarbizitza soziala eta elkarren arteko harremanak bultzatzea ezinbestekoa da (Vallés, 2000; in de Viloría, 2005).

Hortaz, Haur Hezkuntza garaia garapen emozionalaren oinarria dela ikusita, eta garai horretan irakasleok garapen egokia izan dadin dugun erantzukizuna jakinda, garapen emozionalaren barne dauden hiru arloak (ulermen emozionala, erregulazio emozionala eta enpatia) Haur Hezkuntzako umeen artean zelan adierazten diren eta zein mailara garatuta dauden aztertzen jakitea garrantzitsutzat hartu da. Horretarako, ikerketa praktikoa bat egin da, hurrengo ataletan azalduko dena.

2. METODOLOGIA

Atal honetan, lan honen helburua (haurren konpetentzia emozionala neurtzea) lortzeko erabili den prozedura eta tresna azalduko da, eta horrekin batera, ikerketan parte hartutako ikasle kopurua eta hauen ezaugarriak (adina eta sexua).

Helburua

Aurretik esan bezala, ikerketa honekin, Haur Hezkuntzako umeen artean, garapen emozionalean garrantzi berezia duten hiru alderdiak (ulermen emozionala, enpatia eta erregulazio emozionala) nola adierazten diren eta zein mailara garatuta dauden aztertu nahi izan da. Horretarako, bi aldagai hartu dira kontuan, ikasleen sexua eta adina.

Ikerketa aurrera eramane baino lehen, aurretik azalduko informazio guztia kontuan hartuz, hurrengo hipotesiak planteatu dira:

- Neskek mutilek baino puntuazio hobek eskuratuko dituzte, bai ulermen emozionalean, bai erregulazio emozionalean eta bai enpatian.
- Adinak aurrera egin ahala, ikasleen puntuazioak hobek izango dira, hau da, bost urtekoek, lau eta hiru urtekoek baino puntuazio altuagoak lortuko dituzte.

2.1 PARTE-HARTZAILEAK

Ikerketa honetan guztira 42 ikaslek hartu dute parte. Horien artean, hiru urteko 14 ikasle, lau urteko 14 ikasle eta bost urteko beste 14 ikasle (21 neska izan dira eta 21 mutilak). Hauek guztiak zoriz hautatu dira, eta kasu guztietan kopuru bera izateko, adin guztietan, hamalau ikasle aukeratu dira. Ikasle horiek Bizkaiko kostaldeko udalerritan kokatuta dagoen ikastola kooperatibo bateko ikasleak izan dira, hain zuzen ere Practicum IIIa gauzatu izan den ikastolakoak.

2.1 INSTRUMENTUAREN DESKRIBAPENA

Haurren garapen emozionala ebaluatzeko, *Evaluacion del Desarrollo Emocional Infantil* (EDEI) (Hena, 2006) instrumentua hartu da oinarritzat. Honek haurren garapen emozionala neurtzen du, hiru osagaietan zentratzen delarik: enpatian, ulermen emozionalean eta erregulazio emozionalean. Instrumentua bost atal ezberdinetan banatzen da (ikusi 1. eranskina) eta atal bakoitzerako lamina batzuk (ikusi 2. eranskina) prestatu dira. Hona hemen bost atal/faktoreen azalpena:

- 1. Faktorea.** *Aurpegien adierazpenak antzematea.* Honetan bost item daude, beraz bost lamina prestatu dira. Lamina horietan, emozio ezberdinen aurpegi adierazpenak agertzen dira: beldurra, poza, haserrea, tristura eta lotsa. Helburua, haurrek emozio horiek identifikatzea litzateke.
- 2. Faktorea.** *Egoera eta adierazpen emozionalen antzematea.* Kasu honetan, sei item ezberdinetarako sei lamina prestatu dira. Hauetan, egoera batzuk aurkezten dira, non haurrek bertan agertzen diren pertsonaiek zer sentitzen duten adierazi behar duten: beldurra, errua, errukitasuna, harrotasuna, inbidia edota maitasuna.
- 3. Faktorea.** *Ulermen emozionala.* Honetarako lau galdera egingo dira, eta hauei erantzuteko hiru emozio ezberdin adierazten dituzten hiru lamina eskainiko dira. Horrela haurrek, egoerak sentiarazi dienaren arabera, aurpegi bat edo beste aukeratuko dute.
- 4. Faktorea.** *Erregulazio emozionala.* Honetan sei item planteatzen dira. Item bakoitzak egoera bat aurkezten du, eta haurrari egoera horretan egingo lukeenaren inguruan galdetzen zaio (laminarik gabe).
- 5. Faktorea.** *Enpatia.* Azken atal honetan, lau item aurkezten dira, lau laminekin. Lamina bakoitzean bi egoera ezberdin dauden bi protagonista agertzen dira, eta haurrek horietako bat aukeratu beharko dute, egiten zaien galderari erantzunda; adibidez, “nor lagunduko zenuke?”, “norekin elkarbanatuko zenuke?”....

2.2 PROZEDURA – LANAREN GARAPENA

Aipatutako guztia aurrera eramateko lehenik eta behin, Haur Hezkuntzako koordinatzaileari proposamena aurkeztu zitzaion. Momentu horretan, GAL-arekin zirikusia zuen ikerketa bat bost urteko gela batean burutu nahi zela azaldu zitzaion eta berak proposamena entzun ondoren, ikerketa hori Haur Hezkuntzako adin guztietan (hiru, lau eta bost urteko geletan) burutzea aukera ona litzakeela esan zuen.

Galdetegia pasatzeko erabili den era, hiru kasuetan berdina izan da, irakasleen aholkua jarraituz. Hau da, umeak banan-banan deitu izan dira gelatik ateratzeko. Horrela, galdetegia bakarka burutu dute, gelatik kanpo, eta hau egiteak haurrak lasaiago egoteko eta galdetegian gehiago zentratzeko aukera eskaini du.

Horrez gain, haur bakoitzari galdetegiaren atal bakoitzean egin behar zena azaldu eta zalantza izatekotan laguntza ere eskaini zitzaion. Emaitzak momentuan bertan apuntatu eta gero, Excel programaren bitartez jaso ziren. Jarrain, puntuazioetan ezberdintasun esanguratsurik zegoen ikertzeko, IBM SPSS *Statistics* programan, ANOVA (adinaren arabeko ezberdintasunak aztertzeko) eta Student-en T (sexuaren arabeko ezberdintasunak aztertzeko) erabili ziren.

3. EMAITZAK


Atal honetan, emaitzen azterketa egingo da. Lehenik eta behin, galdetegian agertzen ziren faktore guztietan, sexuaren eta adinaren arabeko desberdintasunak esanguratsuak izan diren ($p < .05$) edo ez ikusiko da. Horretarako, 1. eta 2. faktoreen emaitzak batera aztertuko dira, eta gainontzeko faktoreak (3. faktorea: ulermen emozionala, 4. faktorea: erregulazio emozionala, eta 5. faktorea: enpatia) modu independente batean. Horren arrazoia hurrengoa izan da: lan honetan, arreta batez ere hiru arlo nagusietan zentratu da; ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean eta enpatian. Galdetegiko hasierako bi faktoreek umeek emozioak antzemateko duten erraztasuna neurtzen dute, eta gaitasun hau ulermen emozionalaren barruan kokatu badaiteke ere, galdetegiaren egileak ez du horrelako arlorik zehaztu, “antzematea” ulermenetik, erregulaziotik eta enpatiatik bereiztuz. Horregatik 1. eta 2. faktoreak batera aztertuko dira, baina 3., 4. eta 5. faktoreekin nahastu gabe.

3.1 SEXUAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK

Sexuaren arabeko desberdintasunak aztertzeko Student-en T erabili da (1. taula ikusi). Alde batetik, 1. eta 2. faktoreetan (emozioen antzematean), sexuen arteko ezberdintasunak esanguratsuak izan dira ($p = .004$). Hau da, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte, eta bi sexuen arteko ezberdintasun hori, ezan bezala, estatistikoki esanguratsua dela esan daiteke (1. grafikoa ikusi).

1.Taula Sexuen arteko ezberdintasunak 1. eta 2. faktoreetan.

		N	B	DT	t	p
1.eta 2. Faktoreak	Neskak	21	8.90	1.687	-3.178	.004
	Mutilak	21	7.62	.768		




1.Grafikoa. Sexuaren araberako desberdintasunak emozioen antzematean (1. eta 2. faktoreak)


Bestalde, ulermen emozionalean ($p=.000$), erregulazio emozionalean ($p=.252$) eta enpatian ($p=.002$), “ p ” balioa behatuz, desberdintasun esanguratsuak ulermen emozionalean (3. faktorean) eta enpatian (5. faktorean) antzeman daitezke (2. taula ikusi). Bi kasu hauetan ere, nesken puntuazioak altuagoak izan dira mutilenak baino (2. 3. eta 4. grafikoak ikusi).

2.Taula Sexuen arteko ezberdintasunak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean eta enpatian.


		N	B	DT	t	p
3.Faktorea: Ulermena	Neskak	21	26.81	.981	-4.019	.000
	Mutilak	21	24.76	2.119		
4.Faktorea: Erregulazioa	Neskak	21	5.86	.478	-1.166	.252
	Mutilak	21	5.62	.805		
5.Faktorea: Enpatia	Neskak	21	3.76	.539	-3.344	.002
	Mutilak	21	3.00	.894		



2.Grafikoa. Sexuaren araberako desberdintasunak ulermen emozionalean (3. faktorea)



3.Grafikoa. Sexuaren araberako desberdintasunak erregulazio emozionalean (4. faktorea)



4.Grafikoa. Sexuaren araberako desberdintasunak enpatian (5. faktorea)


3.2 ADINAREN ARABERAKO DESBERDINTASUNAK

Adinaren araberako desberdintasunak aztertzeko ANOVA erabili da. Horretarako, adin taldeen artean (orokorrean) desberdintasun esanguratsurik dagoen begiratu da ($p < .05$).

Lehenengo eta bigarren faktoreetan (emozioen antzematean), adinen arteko ezberdintasuna esanguratsua izan da (3. taula ikusi) 3 eta 5 urtekoen artean (5. grafikoa ikusi).

3.Taula Adinaren araberako ezberdintasunak 1. eta 2. faktoreetan.

		N	B	DT	F	p
1 eta 2.Faktoreak	3 urte	14	7.29	1.684		
	4 urte	14	8.64	1.082	6.027	.005
	5 urte	14	8.86	1.027		




5.Grafikoa. Adinaren araberako desberdintasunak emozioen antzematean (1. eta 2. faktoreak)

Ulermen emozionalari erreparatuz, aldiz, adin taldeen artean, orokorrean, desberdintasun esanguratsurik ez dagoela ($p=.225$) ikusi da (4. taula kontsultatu). Erregulazio emozionalari dagokionean, gauza bera gertatu da (4. taula ikusi), adinen arteko puntuazioetan agertu diren ezberdintasunak ez direla esanguratsuak izan ($p=.068$).


Azkenik, enpatian, berriz ere (4. taula ikusi), adinen arteko desberdintasunak antzeman arren, horiek ez dira estatistikoki esanguratsuak izan ($p=.075$). Esan beharra dago, azken hiru faktore hauetan, ezberdintasun esanguratsurik egon ez arren, ezberdintasunik handienak 3 eta 5 urteko taldeen artean eman direla (6., 7. eta 8. grafikoak ikusi).

4.Taula Adinaren arabera ezberdintasunak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean eta enpatian.


		N	B	DT	F	p
3.Faktorea: Ulermena	3 urte	14	25.29	1.978		
	4 urte	14	25.57	2.344	1.552	.225
	5 urte	14	26.50	1.225		
4.Faktorea: Erregulazioa	3 urte	14	5.43	1.016		
	4 urte	14	5.79	.426	2.882	.068
	5 urte	14	6.00	.000		
5.Faktorea: Enpatia	3 urte	14	3.14	.864		
	4 urte	14	3.21	.975	2.775	.075
	5 urte	14	3.79	.426		



6.Grafikoa. Adinaren arabera ezberdintasunak ulermen emozionalean (3. faktorean).



7.Grafikoa. Adinaren arabera ezberdintasunak erregulazio emozionalean (4. faktorea)



8.Grafikoa. Adinaren arabera ezberdintasunak enpatian (5. faktorea)

4. ONDORIOAK

Ikerketa honen bitartez Haur Hezkuntzako umeen garapen emozionalaren parte diren emozioen antzematea, ulermen emozionala, erregulazioa eta enpatia, adin eta sexu bakoitzean zein puntutaraino garatuta dauden aztertu nahi izan da. Hori horrela izanda, ikusi da sexuaren arabera desberdintasunak daudela eta neskek altuago puntuatzen dutela, nahiz eta kasu guztietan ezberdintasun horiek esanguratsuak ez izan. Esanguratsuak izan direnen artean, lehenengo eta bigarren faktoreak daude. Kasu honetan, neskek aurpegiaren adierazpen ezberdinak edota egoera ezberdinetan bizi daitezkeen emozioak hobeto antzeman dituzte mutilek baino. Hori oso lotuta dago hirugarren faktorearekin (ulermen emozionalarekin) zeinetan nesken eta mutilen artean ezberdintasuna esanguratsua izan den. Beraz, ikusten dena zera da: neskek gaitasun handiagoa dutela egoera bakoitzean nagusia den emozioa identifikatzeko, hots, emozioak ulertzeko (Cervantes eta Callanan, 1998; in Etxebarria et al., 2003).

Enpatian neskek ere altuago puntuatu dute, eta mutilekin alderatuz gero, ezberdintasunak esanguratsuak izan dira. Nesken kasuan, galdetegia egiteko momentuan, erantzun baino lehen pentsatu eta denbora tarte txiki bat hartzen zuten esango zutena pentsatzeko. Mutilek aldiz, momentuan bururatzen zitzaiena esan eta beraz, momentuko bulkadetatik abiatzen ziren gehiago. Egia da, mutil guztiek ez zutela jarrera hori izan, eta horietako batzuk erantzun egokia eman zutela ere. Dena den, neskek erantzun enpatikoagoak izatea ez da harrizkeoa, izan ere, datu hau bat dator Hoffmanek (1977 in Retuerto, 2004) esandakoarekin. Haren hitzetan, neskek gainontzekoen lekuan jartzeko eta beste pertsonekin enpatizatzeke erraztasun handiagoa dute mutilek baino. Erregulazio emozionalean, aldiz, ezberdintasunak agertu arren eta neskek mutilek baino altuago puntuatu arren, estatistikoki ez dira ezberdintasun esanguratsuak izan. Beraz, esan beharra dago, planteatutako hipotesia ez dela guztiz bete.

Adinaren aldagaiari dagokionez, ikusi da adinak aurrera egin ahala, hurrek puntuazio altuagoak lortzen dituztela, hau da, bost urtekoek hiru eta lau urtekoek baino altuago puntuatzen dutela. Izan ere, aurretik aipatu den bezala, gero eta nagusiagoak direnean gaitasun handiagoa izaten dute haien jarrera edota emozioak erregulatzeko eta estrategia autonomoak erabiltzeko. Hala ere, oraindik egoera askotan sentimenduak modu egokian erregulatzeko helduaren laguntza behar izaten dute (APA eta NAEYC, 2007). Dena den, galdetegiaren emaitzak ikusita, desberdintasun horiek ez dira kasu

guztietan estatistikoki esanguratsuak izan. Izan ere, lehenengo eta bigarren faktoreetan (emozioen antzematean) soilik izan dira estatistikoki esanguratsuak desberdintasun horiek. Kasu horretan, emozioak egoera ezberdinetan antzemateko gaitasuna, adinak aurrera egin ahala, areagotzen dela esan daiteke, eta beraz, nagusiagoak direnek puntuazio altuagoak lortzen dituztela alderdi horretan. Beste hiru kasuetan (ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean eta empatian) ez dira ziklo bereko urteen artean ezberdintasun esanguratsurik topatu. Hortaz, planteatutako bigarren hipotesia ez dela bete esan beharko litzateke. Baliteke, APAk eta NAEYCk (2007) esaten duten bezala, oraindik haurrek zailtasunak izatea emozioak identifikatu, ulertu eta horiek erregulatzeko, ezaguna den pertsona nagusi baten laguntza behar dutelako.

Beraz, ikusita bi hipotesiak ez direla guztiz bete, emaitza hauek baldintzatu dituzten faktore posible batzuk aipatu beharra dira. Alde batetik, galdetegian parte hartutako ikasleen kopurua, egiten diren ikerketekin konparatuz, hain urria izanda, baliteke ezberdintasun horiek hainbeste ez antzematea, hau da, esanguratsuak ez izatea. Bestetik, praktikak burututako ikasleen taldea hiru urtekoena izan da. Beraz, galdetegiari erantzuteko momentuan, hiru urteko umeei errazago suertatu zitzaien, lasaiago eta konfiantza handiagoz erantzun zuten, galdetegia pasatutako pertsona ezaguna zelako, haiekin praktiketan 3 hilabete emanda zituelako. Horregatik, haien erantzunetan jariakortasun handiagoa nabaritzen zen lau eta bost urteko haurrengan baino. Lau eta bost urtekoek gogotsu parte hartu zuten arren, erantzunetan ez zuten azalpen luzerik eman. Seguruena pertsona ezezagunaren aurrean, lotsatuago sentituko ziren, konfiantza faltagatik. Horregatik egia da, galdetegia norik pasatzen duen eragin handia duela, izan ere, haurrek hurbileko pertsonekin askoz ere irekiago eta berbatiago egon ohi dira (Eisenberg et al., 1993; in Etxebarria, Apodaca, Eceiza, Fuentes eta Ortiz, 2003), eta horrek galderei ondo erantzuteak eragin diezaioke. Gainera, kontuan hartu behar da, galdetegia pasa zen momentua arratsaldea izan zela, beraz, baliteke ordu horretan haurrak jada nekatuta egotea. Horregatik, garrantzitsua da ordutegia ere kontuan hartzea. Hala ere, irakasleek esandakoari moldatu eta haien ordutegia errespetatu zen. Honekin lotuta, esan beharra dago irakasleen jarrera primerakoa izan dela eta une oro edozertan laguntzeko prest egon direla, lan hau burutu ahal izateko oso eskertzekoa izan dena.

Bestalde, ikerketa hau egin ostean, garapen emozionalaren garrantziaz jabetzeaz aparte, emozioak umeekin lantzea oso interesgarria dela aipatu behar da; haien

ikuspuntu ezberdinak, emozioak interpretatzeko moduak, eta azkenean, haietatik at dauden zenbait egoera ulertzeko gaitasuna zein den ezagutzea guztiz ezinbestekoa da. Izan ere, haurrak bere garapenean laguntzeko, lehenik eta behin, haien garapen erreala ezagutu eta ulertu behar da, haien beharrak zeintzuk diren ezagutzeko eta laguntza zertan behar duten jakiteko. Azkenean, gizakia pertsona inguratutako gizarte batean bizi da, eta haurrek bereziki, haien eguneko parterik handiena umez inguratuta ematen dute, beraz, norbere emozioak ezagutzea, ulertzea eta ondo kudeatzen jakinez gero, besteenak ulertzeko gai izango dira. Hau, ezinbestekoa izango da eremu akademikoan arrakasta izateko, batez ere, eskolako eremuan kide zein irakasleekin etengabeko harremanetan daudelako. Esan beharra dago etengabeko harreman horietan, gatazkak suerta daitezkeela. Baina, haien esperientzia eta garapen emozionala egokia izan bada, haien emozioak nola adierazteko edo kontrolatzeko, eta besteren tokian jartzeko erraztasun handiagoa izango dute, oraindik gatazkak modu egokian ebazteko, helduen laguntza ezinbestekoa bada ere (APA eta NAEYC, 2007).

Beraz, esan den bezala, haurren harremanak egokiak izan daitezzen, garrantzitsua da enpatia, emozioen ulermena eta kudeaketa (gaitasun sozialetan eragin nabarmena izango dutenak) txikitatik lantzea, eta Haur Hezkuntzan batez ere, garai horretan garapen emozional horren oinarriak finkatzen direlako. Modu honetan, elkarbizitzarako giro eta klima egokia sustatzeko eta jarrera oldarkorrek, gelan zein gelatik kanpo ekiditeko aukera handiagoa egongo da (Piñeiro, 2016).

Gainera ezin da ahaztu, Haur Hezkuntzako curriculum-ean ikasgeletan irakasleak haurren garapen emozionalean lagundu beharko lukeela zehazten dela. Hau da, curriculum-ak berak, alderdi batzuk azpimarratzen ditu (garapen emozional horren parte direnak): ulermen emozionala (“zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea”), enpatiaren garapena (“gainerako pertsonenak aintzat hartzeko”) eta erregulazio emozionala (“norberaren jokabidea erregulatu”). Dena den, alderdi horiek aipatzen diren arren, hauek nola landu daitezkeen ez da zehazten. Beraz, jakinda horiek landu behar direla, eta alderdi horiek lantzeko arduradun nagusia (ikasgelan) irakaslea dela, irakasleak ardura horren kontzientzia hartu beharko luke. Azken batean, bera da gela bateko erreferente nagusia, eta gela horretako ikasleek berarengandik ikasiko dute. Horregatik ezinbestekoa da irakasleak garapen emozionalaren garrantziaz jabetzea, egunerokotasunean honi bere garrantzia emateko. Hau da, gatazkak sortzen diren momentuak aprobetxatu eta haurrak egoera horietan lagundu, nola sentitzen diren, nola

sentitzen den bestea... galdetuz, haurrek emozioak kudeatzeko estrategia ezberdinak ikas ditzaten. Dena den, ez dira bakarrik gatazkak sortzen diren momentuak erabili behar, zerbait modu egokian egiten denean, edo umeek ekintza baten ostean zelan sentitzen diren galdetzea ere interesgarria litzateke. Horrez gain, gelako proposamenetan, garapen horretan lagundu dezaketen dinamikak edo jarduerak proposatu daitezke, adibidez: haurrei egoera ezberdinak planteatu zer egingo luketen galdetuz, momentu edo egoera ezberdinetan nola sentitzen diren galdetu (bizitzen dituzten emozio horien kontzientzia hartzeko), egoera errealak antzetzu eta bakoitzari rol bat egokitu (horrela pertsonaia bakoitza nola sentitu daitekeen komentatzeko) etab. Hauek guztiak, proposamen sinpleak izan arren, eskola askotan ez dira kontuan hartzen. Ikasleak akademikoki prestatzen dira, gogoratu gabe arrakasta akademikoaren oinarria garapen emozional egokia dela (Piñeiro, 2016). Baina gogoratu beharrekoa da, ikasleak bizitzarako prestatu behar direla, haien bizitzan bizi ditzaketen emozioak ulertu, erregulatu eta egoera ezberdinen aurrean modu enpatiko batean joka dezaten, hots ikasleak gizaki oso eta soziala izaten laguntzea litzateke helbururik nagusiena, haien barnea eta besteena ere ezagutzeko (Henaio eta García, 2009).

Hortaz, gurasoez aparte, irakasleak ere zeregin handia du haurren garapen horretan, haurrak bere buruarekiko duen irudi edo pentsamendu positiboa garatzen laguntzen baitu (APA eta NAEYC, 2007). Beraz, haurraren bizitzako lehenengo urteak, Haur Hezkuntzako urteak, ezinbestekoak dira garapen emozionalerako, eta inguruan dituen helduaren papera erabakigarria izango da (APA eta NAEYC, 2007), garapen emozionalean eragiteaz gain, bere nortasunean eta garapen sozialean eragingo duelako (Fogel, 1993; in Sroufe, 1995).

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- APA. American Psychological Association eta NAEYC. National Association for the Education of Young Children (2007). *ACT – Adults and Children Together – Against Violence. Understanding Child Development as a Violence Prevention Tool*. Washington, DC: MetLife Foundation.
- Ato, E., González, C., eta Carranza, J. (2004). Aspectos evolutivos de la autorregulación emocional en la infancia. *Anales de psicología*, 20(1), 69-79.
- Bayón, C., Fernández, A., eta Morón, G. (2012). Desarrollo del self desde el marco de las relaciones de apego. Implicaciones en la psicopatología y proceso psicoterapéutico. In, M., Desviat, & A. Moreno (Ed.). *Acciones de salud mental en la comunidad* (150-161 or.). Madrid: AEN.
- Candela, C., Barberá, E., Ramos, A., eta Sarrió, M. (2002). Inteligencia emocional y la variable género. *Revista electrónica de emoción y motivación REME*, 5(10), 167-182.
- Etxebarria, I., Apodaca, P., Eceiza, A., Fuentes, M. J., eta Ortiz, M. J. (2003). Diferencias de género en emociones y en conducta social en la edad escolar. *Infancia y aprendizaje*, 26(2), 147-161.
- Eusko Jaurlaritz (2016). 237/2015 Dekretua. Haur Hezkuntzako Curriculum-a, abenduaren 22koa. 9.zk. Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Fernández-Berrocal, P., eta Extremera, N. (2002). La inteligencia emocional como una habilidad esencial en la escuela. *Revista Iberoamericana de educación*, 29(1), 1-6.
- Fernández-Berrocal, P., eta Ruíz Aranda, D. (2008). La inteligencia emocional en la educación. *Electronic journal of research in educational psychology*, 6(15).
- González, C., Carranza, J. A., Fuentes, L. J., Galián, M. D., eta Estévez, A. F. (2001). Mecanismos atencionales y desarrollo de la autorregulación en la infancia. *Anales de psicología*, 17(2).
- Henao, G., eta García, M. (2009). Interacción familiar y desarrollo emocional en niños y niñas. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 7 (2), 785-802.
- Henao, G. C. (2006). *EDEI. Evaluación del desempeño emocional infantil*. Medellín, Manizales: Trabajo de Tesis no publicado.

- Jauregizar, J. (2012). *Atxikimendua ulertzen Hezkuntzaren ikuspuntutik: Atxikimenduaren garapenaren faktoreak*. Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena.
- Koski, S. E., eta Sterck, E. H. (2009). Empathic chimpanzees: a proposal of the levels of emotional and cognitive processing in chimpanzee empathy. *European Journal of Developmental Psychology*, 7(1), 38-66.
- León, D. A., eta Sierra, H. (2008). Desarrollo de la comprensión de las consecuencias de las emociones. *Revista latinoamericana de psicología*, 40(1), 35-45.
- Manstead, A. (1995). Children's understanding of emotion. In J.A. Russell et al. (Ed.). *Everyday Conceptions of Emotions*. 315-331. Amsterdam: Kluwer Academic Publishers.
- Olza, I., eta Marín, M. A. (2014). Neurobiología del vínculo maternofilial: aplicaciones para la lactancia materna y/o artificial. In AEPap (Ed.). *Curso de Actualización Pediatría*. (29-39 or.). Madrid: Exlibris Ediciones.
- Piñeiro, B. (2016). *Educación de las emociones en la primera infancia*. XinXii.
- Retuerto, A. (2004). Diferencias en empatía en función de las variables género y edad. *Apuntes de psicología*, 22(3), 323-339.
- Sroufe, A. (1995). *Desarrollo emocional. La organización de la vida emocional en los primeros años*. Mexico: Oxford University Press.
- Viloria, A. (2005). La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela: programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de los profesores. *Tendencias Pedagógicas* 10, 107-123.

ERANSKINAK

1.ERANSKINA. GARAPEN EMOZIONALA AZTERTZEKO GALDETEGIA.





Garapen emozionalaren azterketa (EDEI-n oinarrituz)					
Adina:			Sexua:		
1.Faktorea. Aurpegi adierazpenak antzematea.					
Umeari honako hau esaten zaio: “behatu haur hauen aurpegiak eta esan zer sentitzen duten”.					
Emozioak	Haurraren erantzuna	BAI (1)	EZ (0)	Erantzunak	
				Zuzenak	Okerrak
Beldurra				Beldurra	Harridura
				Ikara	Tristura
					Pentsatzen dago
					Negar egingo du
Poza				Zoriontasuna	Harridura
				Gogoberotasuna	Jeloskortasuna
				Poza	
Aморrua				Aморrua	Tristura
				Haserrea	Seriotasuna
				Hira	Asperdura
Tristura				Tristura	Haserrea
				Negarra	
Lotsa				Lotsa	Inbidia
				Pena	Mina
					Aморrua
2.Faktorea. Egoera eta adierazpen emozionalen antzematea.					
Umeari honako hau esaten zaio: “Behatu haurrari gertatu zaiona eta esan zer sentitzen duen”.					
Egoera	BAI (1)	EZ (0)	Erantzun posibleak		
Beldurra			-Bakarrik lo egitea ez zaio gustatzen. -Bakarrik lo egitean triste jartzen da.		
Errua			-Triste jarri da leihoa apurtzeagatik. -Oso txarto sentitzen da egin duenagatik. -Hori ez dela egin behar pentsatzen du.		
Errukitasuna			-Bere laguna negar egiten ikustean pena sentitzen du. -Bere laguna lagundu nahi du.		
Harrotasuna			-Pozik sentitzen da saria irabazi duelako. -Saria irabazteagatik zoriondu dute.		
Inbidia			-Bere lagunak duen jostailua, berak nahi duenez, haserretzen da. -Oso txarto sentitzen da, ez duelako norekin jolastu.		
Maitasuna			-Asko maite dute elkar.		

3.Faktorea. Ulermen emozionala.					
Egoeren hautematea/enpatia. “Hiru aurpegi hauek behatu. Aurpegi hauek, irakurriko ditudan esaldiekin erlazionatu behar dituzu”.					
Zure lagun baten urtebetetzea da eta gurasoek festa bat prestatuko ziotela esan zioten, baina azkenean ez diote prestatu. Nola uste duzu sentitzen dela zure laguna? : \ (1) ☹ (2) ☺ (0)					
Irakasleak zure laguna zoriondu du ikasle bikaina izateagatik. Nola uste duzu sentitzen dela zure laguna? : \ (1) ☹ (0) ☺ (2)					
Ander-en amak, Ander lagunekin ezin dela parkera joan esan du. Ander-ek ez dio kasurik egin eta beraz, amak zigortu egin du. Nola uste duzu sentituko dela Ander? : \ (1) ☹ (2) ☺ (0)					
Zure lagunak, Mirenek, txakurtxo bat topatu du eta etxera eraman nahi du. Gurasoek etxera eramaten utzi diote. Nola uste duzu sentituko dela Miren? : \ (1) ☹ (0) ☺ (2)					
3.1 Egoeren asoziazioa / emozioak					
“Hiru aurpegi behatu eta nola sentitzen zaren adierazteko, aukeratu bat”					
Egoera. Nola sentitzen zara?	Emozioa			Adierazitako emozioa	
Zoriontzen zaituzte	: \ (1)	☹ (0)	☺ (2)		
Jolastera gonbidatzen zaituzte	: \ (1)	☹ (0)	☺ (2)		
Zirikutzen zaituzte	: \ (1)	☹ (2)	☺ (0)		
Gurasoek zigortzen zaituzte	: \ (1)	☹ (2)	☺ (0)		
Jostailu bat oparitzen dizute	: \ (1)	☹ (0)	☺ (2)		
Egin beharrekoa ondo egin duzu	: \ (1)	☹ (0)	☺ (2)		
Oporretan zaude	: \ (1)	☹ (0)	☺ (2)		
Lorontzi bat apurtzen duzu	: \ (1)	☹ (2)	☺ (0)		
Parkean galtzen zara	: \ (1)	☹ (2)	☺ (0)		
Zure lagunak burla egin dizute	: \ (1)	☹ (2)	☺ (0)		
4.Faktorea. Erregulazio emozionala					
Zer egingo zenuke zuk?	Erasotzen du (0)	Elkarrizketa bilatzen du (1)	Ez du ezer egiten (1)	Oihukatzen du (0)	Beste erantzun bat
Futbol partidu batean denak elkar jotzen hasten dira.					
Zure lagunak zure gustuko pilotaren hartzen dizu.					
Zu baino txikiagoa den lagun batek jo nahi zaitu.					
Zure lagunari zuk nahi zenuen jostailua oparitzen diote.					
Zure gurasoek zigortzen zaituzte.					
Zure irakasleak, zure ikaskidea asko maite du.					


5.Faktorea. Enpatia / Besteen emozioak antzeman.			
Nori lagunduko zenioke?			
Erori den haur bati.	(1)	Jolasten ari den haur bati.	(0)
Norekin elkarbanatuko zenuke?			
Nerea gose da, eta ez dauka bokatarik.	(1)	Anek bokata ekarri du, eta zuri gehiago eskatzen dizu.	(0)
Norengana hurbilduko zinateke?			
Anak negar egiten du, bere txakurtxo galdu duelako	(1)	Martinak negar egiten du, amak errieta egin diolako txarto portatzeagatik.	(0)
Nor zorionduko zenuke?			
Jon bere lagunekin jolasten delako.	(1)	Koldo, bere lagunari jostailua kendu diolako.	(0)

2.ERANSKINA. GALDETEGIA AURRERA ERAMATEKO LAMINAK.

1.Faktorea. Aurpegien adierazpenak antzematea.



2. Faktorea. Egoera eta adierazpen emozionalen antzematea.



3. Faktorea. Ulermen emozionala.





5. Faktorea. Enpatia

